

# Artzaina



**Egilea:** Sara Molina Pérez

**Egun batean, Gorbeia mendian, artzain bat bizi zen bere axuriekin. Artzaina Andoni deitzen zen.**

**Behin, ardi beltzak ihes egin zuen harriz beteriko paraje batera. Ardia harrien artean erori zen eta Andoni salbatzera joan zen. Andoni ere erori zen, baina ez zuen minik hartu, eta ardia aurkitu zuen. Andoni, ardia atera zuenean, hango koba batera sartu zen eta barruan altxor bat aurkitu eta hartu zuen. Altxor kutxaren barruan mapa bat zegoen eta maparen ondoan gauza bitxi bat. Dena hartu eta kobatik atera zen bere etxera joateko.**

**Hurrengo egunean Andonik mapa hartu eta seinalatzen zuen lekura abiatu zen. Basora sartu zenean ez zekien ardiak jarraitzen ziola. Bidea zihoala pertsona bat agertu zitzaion eta hizketan hasi ziren :**

**-Kaixo, nire izena Ekaitz da, Andoni!**

**-Utzi pasatzen -ezan zuen Andonik!**

**- Proba bat gainditu arte ez dizut utziko pasatzen -esan zuen Ekaitzek.**

**-Eta proba gaizki egiten badut? -esan zuen Andonik.**

**-Ba orduan, ez zara inoiz pasatuko. Hau da proba: minutu erdian koba bat egin behar duzu.**

**Orduan, Andoni harri batera joan eta hogeitasei segundutan koba oso zakona egin zuen. Ekaitzek ez zion ezer eman, baina bidea jarraitzen utzi zion.**

**Andonik, aldi batean, atzera begiratu eta ardia ikusi zuen. Azkenean, berarekin eramatea erabaki zuen.**

**Bidea jarraitzen zuen bitartean, beste pertsona batekin egin zuen topo:**

**-Kaixo, nor zara zu? -esan zuen Andonik.**

**-Ni Ekaitzen anaia naiz, Arkaitz. Nire anaiak ez zaitu irabazi, baina ni indartsuagoa naiz eta proba zailagoa jartzen dut.**

**-Bale, baina esan proba behingoz! -esan zuen Andonik.**

**-Beno, minutu batean erreka bat egin behar duzu.**

**-Bale! -esan zuen Andonik.**

**Orduan, ezer jakin gabe, eskuekin lurrian bide bat egin zuen. Gero, dena galduta zegoela pentsatu zuenean, euri ugari egiten hasi zen erreka bihurtu arte.**

**Arkaitz, galdu zuenean, berehala konturatu zen eta ihes egiten saiatu zen, baina ezin izan zuen erdian erreka zegoelako:**

**-Ondo, irabazi duzu, baina begiratu mapan -esan zion Arkaitzek.**

**-Zertarako?**

**-Zuk begiratu! -esan zion Arkaitzek.**

**Andonik begiratu zuen eta iritsi zen. Ezin zuen sinetsi... .. 100urte pasa ondoren!!!**

**Egindako kobazuloak eta ibaiak izena dute: kobazuloak “Mairugorreta” eta ibaiak “Baia”.**